2015

*Gipuzkoako Lurralde Behategia*

Txosten laburra

# Euskal Eurohiria I:

## Biztanleriaren azterketa

Lanaren egilea:

Gaindegia

Babeslea:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

www.gipuzkoakodatuak.net

# Aurkibidea


1. Euskal Eurohiria
   1 Jatorria
   2 Lurraldea

2. Biztanleriaren azterketa
   1 Biztanleriaren banaketa
   2 Biztanleriaren bilakaera
   3 Biztanleriaren zahartzea
   4 Biztanleriaren biziberritzea

3. DATUAK

Datuak eta argitalpen osagarriak:
- Datuak ↗
- Argitalpen multimedia↗

# 1. Euskal Eurohiria

## Jatorria

- Euskal Eurohiria 1993an sortutako proiektua da.
- Partaideak:
  - Euskal Kosta-Aturri konglomerazio elkargoa
  - Hego Lapurdiko hirigunea
  - Bidasoa-Txingudi partzuergoa
  - Oarsoaldea eskualdeko garapen agentzia
  - Donostiako udala
  - Gipuzkoako Foru Aldundia
- 2008tik bi ardatz estrategiko daude zehaztuta:
  - Garapen iraukorra
  - Mugikortasuna

BAYONNE-SAN SEBASTIAN
EUROCITÉ BASQUE
EUSKAL EURO-HIRIA
EUROCIUDAD VASCA

# 1. Euskal-Eurohiria

## Lurraldea

- Atlantikoko arkua jarraituz mugaz gaindiko 50km-ko hiri eta kostaldeko korridorea da Euskal Eurohiria.
- 596,4 km$^2$-ko azalera duen eremua da eta 522.495 biztanle bizi dira.
- 24 udalerrik osatzen dute Donostia eta Baiona bitartean.
- Bere **eremu funtzionalak** beste hainbat udalerritan eragiten du (Mendebaldean Andoain eta Getariaraino, ekialdean Lapurdi barnealdeko hainbat herri, Arrangoitze, Larresoro, Hiriburu…).
    - Eragin eremua kontutan hartuta 925,76 Km$^2$ -ko azalera hartzen du Eurohiriak.
    - Eragin eremuan 122.528 biztanle bizi dira.



# 2. Biztanleriaren azterketa

[-Datuak ↗]

## Biztanleriaren banaketa

- Euskal Eurohiria 522.495 biztanlek osatzen dute, Gipuzkoan baino %27 gutxiago (Gipuzkoak 715.148 biztanle ditu).

- Biztanleriaren ia erdia (%44,1) Donostian eta Baionan pilatzen da, Eurohiriaren bi muturretan.




**Biztanleria kopurua**

Udalerri populatuenak Donostia, Irun, Baiona eta Errenteria dira. Biztanle gutxien Lapurdi barneko udalerriek biltzen dute.



# 2. Biztanleriaren azterketa

## Biztanleriaren banaketa

- Biztanleria dentsitate oso altuko espazioa da.
  - Eurohiriko biztanleria dentsitatea (876,1 bizt/km²) Gipuzkoakoaren bikoitza baino gehiago da (374,9 bizt/km²).

-Datuak ↗

Biztanleria dentsitatea (bizt/km²). Eurohiria eta Gipuzkoa, 2014.




**Biztanleriaren dentsitatea (bizt/km²)**

Biztanleriarekin gertatzen den bezala, dentsitate altueneko eremuak lurraldearen muturretan daude: Donostia, Miarritze eta Baionan.
Baxuena dutenak Lapurdi barnealdeko Ainhoa, Sara eta Senpere dira.



# 2. Biztanleriaren azterketa

## Biztanleriaren bilakaera

1981-2011 artean hazkunde positiboa izan du Eurohiriko biztanleriak (%11,5), Gipuzkoak (%2) baino handiagoa. Bilakaera aztertuta, azken 40 urteetan etengabe hazi da biztanleria, Gipuzkoan ez bezala.

Datuak ↗

**Biztanleriaren bilakaera (1981 oin.=100). Eurohiria eta Gipuzkoa, 1981-2011.**




**Biztanleriaren hazkundea 1981-2011 artean (%)**

Biztanleria galdu duten udalerriak (gorriz), Pasaia, Errenteria eta Miarritze izan dira. Gehien hazi direnak (urdin ilunez) Ahetze, Bidarte eta Senpere.




gaindegia

# 2. Biztanleriaren azterketa

## Biztanleriaren zahartzea

- Eurohiria populazio dentsitate altua eta biztanlerian goranzko joera duen lurraldea da baina nabarmena da erakusten duen **zahartze indize altua**. Lapurdiko udalerriek (batez ere kostaldekoek) eragin zuzena dute aspektu honetan.
- Eurohiriko zahartze indizea (158,5) Gipuzkoakoa baino gorago dago (140,6).

Zahartze indizeak 15 urte baino gutxiagoko 100 biztanleko 65 urtetik gorako zenbat biztanle dauden adierazten du.

-Datuak ↗

Zahartze indize altuenak Lapurdiko kostaldeko udalerrietan daude (Miarritze, Donibane-Lohizune, Ziburu eta Getarian).

**Zahartze indizea, 2014**



# 2. Biztanleriaren azterketa

## Biztanleriaren biziberritzea

- Biztanleriaren zahartzeak eragina du biztanleriaren biziberritzean. Eurohiriko ordezkatze indizea (%74,1) Gipuzkoako datuaren (%72,5) gainetik badago ere, balore baxua izaten jarraitzen du.

Ordezkatze indizeak 55-64 urte arteko 100 biztanleko 20-29 arteko zenbat biztanle dagoen adierazten du.

-Datuak ↗

Ordezkatze indize altuenak Lapurdi barnealdeko udalerrietan daude (Senpere, Bokale eta Saran) eta baxuenak Urruña, Azkaine eta Miarritzen.



# 2. Biztanleriaren azterketa

## Biztanleriaren biziberritzea

- Gazteen ordezkatze indizea Gipuzkoan altuagoa da (1,1) Eurohirian (1,0) baino. Belaunaldi gazteak, beraz, parekatuago daude eta ez dago zahar eta gazteen artean dagoen bezalako alderik.

Gazteen ordezkatze indizeak 15-29 urteko biztanle bakoitzeko dagoen 0-14 urteko biztanle kopurua adierazten du.

Datuak ↗

Gazteen ordezkatze indize altuenak Biriatun, Arbonan eta Ainhoan daude. Baxuenak Baiona, Miarritze eta Angelun.



# 3. DATUAK

## ERANSKINAK

Datuak eta argitalpen osagarriak:

-Argitalpen multimedia↗

## I. Taula:

| | Biztanleria osoa 2014 | Biztanleria dentsitatea (bizt/km²) 2014 | Ordezkatze indizea 2014 | Gazteen ordezkatze indizea 2014 | Zahartze indizea 2014 |
|---|---|---|---|---|---|
| **EUROHIRIA** | **522.495** | **876,1** | **74,1** | **1,0** | **158,5** |
| **GIPUZKOA** | **715.148** | **374,9** | **72,5** | **1,1** | **140,6** |
| Hondarribia | 16.894 | 567,9 | 71,2 | 1,1 | 126,9 |
| Irun | 61.195 | 1.461,7 | 74,3 | 1,1 | 134,6 |
| Lezo | 6.007 | 709,6 | 64,1 | 1,0 | 100,6 |
| Oiartzun | 9.970 | 167,6 | 72,2 | 1,1 | 110,4 |
| Pasaia | 15.929 | 1.504,6 | 76,2 | 1,1 | 165,4 |
| Errenteria | 39.230 | 1.227,2 | 66,0 | 1,2 | 150,9 |
| Donostia-San Sebastián | 186.126 | 3.062,9 | 70,2 | 0,9 | 174,1 |
| Ahetze | 1.856 | 175,6 | 103,4 | 1,1 | 65,1 |
| Ainhoa | 673 | 43,0 | 107,8 | 1,6 | 98,5 |
| Angelu | 38.581 | 1.436,0 | 73,9 | 0,8 | 190,2 |
| Arbona | 2.056 | 192,3 | 47,5 | 1,7 | 115,3 |
| Azkaine | 4.079 | 211,0 | 63,4 | 1,2 | 110,8 |
| Baiona | 44.331 | 1.720,5 | 122,1 | 0,7 | 145,7 |
| Biarritz/Miarritze | 25.903 | 2.220,1 | 64,0 | 0,7 | 350,5 |
| Bidarte | 6.296 | 516,0 | 75,3 | 1,0 | 107,7 |
| Biriatu | 1.114 | 105,4 | 66,2 | 1,8 | 66,3 |
| Bokale | 7.801 | 1.347,6 | 78,3 | 1,0 | 120,6 |
| Ziburu | 6.864 | 922,3 | 64,5 | 1,0 | 194,3 |
| Getaria | 1.326 | 901,1 | 58,3 | 1,0 | 191,3 |
| Hendaia | 15.976 | 1.689,7 | 68,8 | 1,3 | 103,3 |
| Donibane Lohizune | 12.960 | 679,1 | 56,9 | 1,0 | 235,6 |
| Senpere | 5.865 | 89,8 | 84,6 | 1,1 | 77,6 |
| Sara | 2.517 | 49,8 | 77,0 | 1,1 | 130,5 |
| Urruña | 8.946 | 175,3 | 62,6 | 1,2 | 86,5 |

# 3. DATUAK

## ERANSKINAK

Datuak eta argitalpen osagarriak:
-Argitalpen multimedia↗

## II. Taula:

| | Biztanleria | | | | Hazkundea (%) | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1981* | 1991** | 2001*** | 2011 | 1981-1991 | 1991-2001 | 2001-2011 | 1981-2011 |
| **EUROHIRIA** | **467.174** | **474.163** | **490.586** | **520.772** | **1,5** | **3,5** | **6,2** | **11,5** |
| **GIPUZKOA** | **694.681** | **676.488** | **673.563** | **708.428** | **-2,6** | **-0,4** | **5,2** | **2,0** |
| Hondarribia | 11.380 | 13.524 | 15.044 | 16.391 | 18,8 | 11,2 | 9,0 | 44,0 |
| Irun | 53.334 | 53.276 | 56.601 | 60.747 | -0,1 | 6,2 | 7,3 | 13,9 |
| Lezo | 5.405 | 5.281 | 5.834 | 6.011 | -2,3 | 10,5 | 3,0 | 11,2 |
| Oiartzun | 7.732 | 8.413 | 9.179 | 10.012 | 8,8 | 9,1 | 9,1 | 29,5 |
| Pasaia | 20.756 | 18.314 | 15.962 | 15.727 | -11,8 | -12,8 | -1,5 | -24,2 |
| Errenteria | 46.496 | 41.646 | 38.224 | 39.228 | -10,4 | -8,2 | 2,6 | -15,6 |
| Donostia-San Sebastián | 169.228 | 171.439 | 178.377 | 185.512 | 1,3 | 4,0 | 4,0 | 9,6 |
| Ahetze | 869 | 1.069 | 1.318 | 1.856 | 23,0 | 23,3 | 40,8 | 113,6 |
| Ainhoa | 544 | 539 | 599 | 673 | -0,9 | 11,1 | 12,4 | 23,7 |
| Angelu | 29.821 | 33.041 | 35.261 | 38.581 | 10,8 | 6,7 | 9,4 | 29,4 |
| Arbona | 1.196 | 1.366 | 1.392 | 2.056 | 14,2 | 1,9 | 47,7 | 71,9 |
| Azkaine | 2.159 | 2.653 | 3.099 | 4.079 | 22,9 | 16,8 | 31,6 | 88,9 |
| Baiona | 41.381 | 40.051 | 40.113 | 44.331 | -3,2 | 0,2 | 10,5 | 7,1 |
| Biarritz/Miarritze | 26.598 | 28.742 | 30.046 | 25.903 | 8,1 | 4,5 | -13,8 | -2,6 |
| Bidarte | 3.044 | 4.123 | 4.670 | 6.296 | 35,4 | 13,3 | 34,8 | 106,8 |
| Biriatu | 594 | 694 | 830 | 1.114 | 16,8 | 19,6 | 34,2 | 87,5 |
| Bokale | 6.169 | 6.814 | 6.999 | 7.801 | 10,5 | 2,7 | 11,5 | 26,5 |
| Ziburu | 6.205 | 5.849 | 6.286 | 6.864 | -5,7 | 7,5 | 9,2 | 10,6 |
| Getaria | 1.042 | 1.105 | 1.291 | 1.326 | 6,0 | 16,8 | 2,7 | 27,3 |
| Hendaia | 10.572 | 11.578 | 12.624 | 15.976 | 9,5 | 9,0 | 26,6 | 51,1 |
| Donibane Lohizune | 12.769 | 13.031 | 13.241 | 12.960 | 2,1 | 1,6 | -2,1 | 1,5 |
| Senpere | 3.056 | 3.463 | 4.353 | 5.865 | 13,3 | 25,7 | 34,7 | 91,9 |
| Sara | 1.930 | 2.054 | 2.185 | 2.517 | 6,4 | 6,4 | 15,2 | 30,4 |
| Urruña | 4.894 | 6.098 | 7.058 | 8.946 | 24,6 | 15,7 | 26,7 | 82,8 |

* Lapurdiko udalerrietan 1982ko datua da.
** Lapurdiko udalerrietan 1990eko datua da.
*** Lapurdiko udalerrietan 1999ko datua da.

# Hurrengo txostena

- Hurrengo txostenean Euskal Eurohiriari dagozkion beste hainbat aldagai sozioekonomiko landuko dira (etxebizitza, establezimenduak…).

- Era honetan eskualde honen argazki osoago bat lortuko da eta berau hobeto ulertzeko ondorio batzuk ateratzeko modua izango da.